

EMAKUMEEI, NESKEI ETA LGBTIQA+1 KOLEKTIBOKO KIDEEI BEREZKOAK ZAIZKIEN ASILO-ARRAZOIAK BENETAN AITOR DAITEZEN.¹

Indarkeria sexual eta sexistek (besteak beste, etxeko indarkeriak, sexu-esplotazioak, norberaren borondatearen aurkako ezkontzek, mutilazio genitalek, emakumeen salerosketak, baztertzaleak diren legeek, haurrak kentzeak) emakume, neska eta LGBTIQA+ kolektiboko kide asko bultzatzen dituzte beren herrialdeetatik ihes egin eta Europar asiloa eskatzera.

Pertsona horiek ia sistematikoki pairatzen dituzte indarkeria eta esplotazioa migrazio-bidaia osoan zehar, besteak beste: indarkeria sexuala, mugalarren edo errefuxiatu-esparrietan dauden beste batzuen eskutik; esplotazio sexuala, edo igarotzen diren herrialdeetako emakumeen salerosketa-sareetan preso erori eta beren borondatearen kontra lan egitera derrigortzea (baita Europako herrialdeetan ere); mehatxuak, traumak eta beren hurrek bizi dituzten arriskuak.

Behin Europara iritsita, egokitu gabe dauden prozedurekin egiten dute topo, eta harrera duina ere ez zaie egiten. Egungo asilo-prozedurek ez dute aukerarik ematen generoagatiko indarkeriaren biktimak edo emakumeen salerosketaren biktimak identifikatzeko, ostatu emateko azpiegiturak ez daude egokituta eta ez dago babes-neurri nahikorik. Eta, gainera, askotan ez zaie aitortzen asilorako arrazoi espezifikoak dituztenik, nahiz eta Europako zuzentarau ugaritan eta Istanbulgo Hitzarmenean aitortu egiten den emakumeek pairatzen duten generoagatiko indarkeria nazioarteko babesa jasotzeko eskubidea ematen duen jazarpen-mota bat dela.

Guk, Europako eta munduko herritar gisa, hauxe eskatzen diegu Europako Batzordeari, Europako Parlamentuari, Europako Kontseiluari eta Schengengo esparruko gobernu nazionalai:

1

Berma diezaietela nazioarteko babeserako eskubidea emakumeei, neskei eta LGBTIQA+ kolektiboko kideei, berezkoak zaizkien asilo-arrazoi guztien benetako aitortzea eginez.

Eskatzen dugu aitortzen hori bermatuta eduki dezatela genero-indarkeriaren biktima diren emakume, neska eta LGBTIQA+ kolektiboko kide guztiek, eta horretarako pertsona horien beharrian espezifikoak eta, beharrezkoa bada, beraiekin doazen haurrenak ere aintzat har daitezela asilo- eta harrera-prozesu osoan.

Hori bermatzeko, aukera izan behar dute salerosketaren biktimak eta genero-arrazoiengatiko eta heterossexuala ez den beste sexu-orientazio bat izateagatiko indarkeriaren biktimak identifikatzeko balio duten prozesuetan automatikoki sartzeko. Ez hori bakarrik: asilo-eskaerak aztertzeo baldintza egokiak ere ezinbestekoak dira.

Bermatu egin behar da LGBTIQA+ kolektiboaren auziekiko sentikorrak diren emakumezko gizarte-langileak, interpreteak, osasungintzako langileak, psikologoak eta legelariak daudela ostatu- eta harrera-zentroetan. Debekatu egin behar dira erbesteratuta dauden emakumeen eta horien haurren, nesken eta LGBTIQA+ kolektiboko kideen atxilotetak. Dublingo Erregelamendua ez zaie zaurgarriak diren pertsonen aplikatu behar: emakumeei, neskei eta LGBTIQA+ kolektiboko kideei automatikoki aplikatu behar zaie subiranotasunaren klausula.

Eskatzen dugu Europako Batzordeak eta gobernu nazionalak beharrezkoak diren bitartekoak jar ditzatela, emakumeei, neskei eta LGBTIQA+ kolektiboko kideei berezkoak zaizkien asilo-arrazoiak benetan aitortzeko prozedura eta azpiegitura egokiak ezartzeko.

¹Emakume» terminoak barne hartzen ditu beren burua emakumetzat duten banako guztiak, jaiotzean zuten sexua edozein izanik ere. Gauza bera gertatzen da «neska» terminoarekin ere. Azken horrek adingabeei egiten die erreferentzia. LGBTIQA+ terminoak, aldiz, barne hartzen ditu beren burua lesbiana, gay, bisexual, intersexual, queer, asexual edo bestelakotzat duten banako guztiak.

2

Ezar dezatela Europako instantzia bat, Istanbulgo Hitzarmenaren 60. eta 61. artikulua eta Gizakien salerosketaren aurkako borrokari buruzko hitzarmenaren 10. artikulutik 16. artikulura bitartekoak benetan aplikatzen direla zaintzeko.

Istanbulgo Hitzarmenaren 60. artikulua formalki ezarri zuen estatu sinatzaileek derrigorrez aitortu behar dutela generogatik indarkeriaren biktimek nazioarteko babesa jasotzeko eta generoa aintzat hartzen duten harrera- eta asilo-prozedurak eta babes-zerbitzu egokituak eskatzeko eskubidea dutela. Ildo horretan, garrantzitsua da, batetik, zaintzea hitzarmen horretan ezarritakoari jarraikiz finkatzen direla estatu sinatzaileetako lege nazionalak eta, bestetik, bermatzea hori benetan aplikatzen dela herrialde sinatzaile guztietan. Halaber, zorrotz errespetatu eta eraginkortasunez zaindu behar da Istanbulgo Hitzarmenaren 61. artikulua berresten duen ez-itzulketaren printzipioa, emakumeak, neskak eta LGBTIQ+ kolektiboko kideak ez daitezen itzularazi indarkeriak jasan ditzaketen herrialde horietara.

Bestalde, Gizakien salerosketaren aurkako borrokari buruzko hitzarmena errespetatzea (batez ere, 10-16. artikulua) funtsezkoa da, salerosketaren biktimek asilo-prozedura justu eta eraginkorrak, laguntza eta babesa, eta kalte-ordainak jasoko dituztela bermatzeko.

Istanbulgo Hitzarmenaren eta Gizakien salerosketaren aurkako borrokari buruzko akordioa benetan aplikatzen dugu, genero-arrazoiengatik biktimek aitortuak eta babestuak izan daitezen eta nazioarteko babesa jaso dezaten.

3

Berma dezatela Europako herrialdeetan asilorako eskubidea baliatu ahalko dutela emakumeek, neskek eta LGBTIQ+ kolektiboko kideek.

Europako Batzordeak 2020ko irailean aurkeztu zuen migrazioari eta asiloari buruzko Europako hitzarmen berria, eta haren helburu nagusia Europarako sarbidea mugatzea da. Salatu egiten dugu EBren interesak babesa behar duten migratzaileen eskubideen kaltetan defendatzen dituen hitzarmen hori. Hain zuzen, muga-erregimen zurrungoak, Europaren kanpo-mugetan iragazketak egiteko prozedura azeleratuak, harrera-betebeharra alde batera uztea eta Europar Batasuneko estatu ez diren hirugarren herrialdeetan asilo-prozedurak ezartzea eta kanporaketak erraztea dira hitzarmen berri eta onartezin horren ardatzak.

Europako herrialdeetako enbaxadetan asilo-eskaerak egiteko ezintasunak hilerri erraldoi bihurtu du Mediterraneoa, eta mugetan eskaerak aztertzeke dauden prozedura azeleratuak ez dute aukerarik ematen emakumeei eta beraiekin doazen hurrei, neskei eta LGBTIQ+ kolektiboko kideei berezkoak zaizkien asilo-arrazoiak eta zaurgarritasunak aitortzeko.

Emakumeei, neskei eta LGBTIQ+ kolektiboko kideei Europan asilo-eskaerak egiteko aukera emango dieten legezko bide errazak baino ez ditugu eskatzen.